

FITXA: 213 - ARABA - Arabako kuadrilletan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdia 2026ko ekitaldirako

Nori zuzendua: Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak izango dira onuradunak, salbu eta Vitoria-Gasteizko Kuadrilla.	
Deialdia: ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala	Deialdiaren data: 2026/03/18
Sarbide-esteka: https://egoitza.araba.eus/eu/	
Erreferentziazko araudia: Foru Agindua 132/2026 martxoaren 5koa. - https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/033/2026_033_00705_E.pdf	
Eragin eremuak: Prestakuntza	
Zenbatekoa: 127.472,00 €	
Aurkezteko lehen eguna: 2026/03/19	Aurkezteko azken eguna: 2026/04/17
Aurrerakina: Ez da zehaztu.	Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu
Gehieneko zenbatekoa: Prestakuntza-jarduera mota bakoitzerako aldakorra.	Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Laburpena

Arabako kuadrilletan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdiaren xedea da Arabako kuadrillek prestakuntza ekintzak egin ditzaten bultzatzea eta sustatzea, biztanle aktiboen (lanean ari direnen zein lanik ez dutenen) gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko eta gure ekonomiaren lehiakortasuna areagotzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira biztanle aktibo guztientzako (lanean ari direnentzako zein lanik ez dutenentzako) enplegurako prestakuntzarako ikastaroak. Prestakuntza ekintzek jorratu beharreko gaiak zuzenean egon beharko dira lotuta Arabako sistema produktiboarekin eta Arabako enpresen eta lan merkatuaren beharrezkin. Beraz, kultura, aisia eta astialdia eta beste arlo batzuk ez dira landuko prestakuntza ekintzetan, eta kanpoan geratuko dira, halaber, administrazio publikoetako funtzionarioentzako edo lanpostu nahiz kargu publikoa dutenentzako prestakuntza ekintzak.

Jarduera-ildoak

a) Zuzeneko prestakuntza, bai aurrez aurre, ikastaroa emateko gela edo espazio egoki batean; bai birtualki, ikastaroa egiten duten ikasleak eta ikastaroa ematen duten irakasleak aldi berean zuzenean telematikoki konektatuz.

b) Teleprestakuntza, deialdi honen ondorioetarako, baliabide telematikoen bidez (ez zuzenean) emandako prestakuntza da. Ikasleak egokien zaien unean konektatzen dira prestakuntza jasotzeko, eta, gainera, tutoretza ordu batzuk dituzte, zalantzak argitzeko eta aurrerapausoak egiaztatzeko, eta, horrela, erabilitako materialen edukiak osatzen dituzte.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Prestakuntza-jarduera mota bakoitzerako aldakorra.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren prestakuntza ekintzak deialdiaren ebazpena ematen denetik aurrera hasi beharko dira eta amaituta egon beharko dira 2026ko azaroaren 21erako.